


SKOLAE

BERDIN BIDEAN
CRECIENDO EN IGUALDAD

1. zk.

GALDERA OHIKOENAK



SKOLAE Programaren edukiak eta arrazoiak familiei jakinarazteko dokumentazio segida baten lehen argitalpena da honakoa.

Informazioa osatu nahi duten familiek formazio-saioak izanen dituzte, baita Hezkuntza Departamentuaren webgunean ezarritako atal berezia ere.

skolae.educacion.navarra.es webgunean programaren zein bere garapenaren informazio eguneratua jasoko da.

Egilea: SKOLAE Programaren Koordinazio eta Kudeaketa Taldea.

Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua

Iruña 2019



SKOLAE Programa,

berdintasunean bizitzen ikasteko ibilbide bat

AURKEZPENA

Hezkuntza Departamentutik, bi helburu argi genituela hasi ginen SKOLAE Programa diseinatzen.

Alde batetik, indarreko araudia betetzea, berdintasuna hezkuntza-sisteman txertatzera behartzen gaituena, eta, bestetik, erreferentzia antolatu eta sistematikoa ezartzea hezkuntza-etapa guztietan zehar egin ahal izateko, irakasle eta hezkuntza-zentroen eskutik, hezkuntza-komunitatearen gainerako kideen, familien eta toki-ingurune hurbilenaren laguntzarekin.

SKOLAEren edukiak hauen inguruko azterketa oinarri hartuta pres-tatu dira: berdintasun-ezak, egun gure gizartean gertatzen ari den emakumeen aurkako indarkeria eta neska-mutikoei txiki-txikitatik eta ohartu gabe transmititzen dizkiegun desberdintasun-ereduak.

SKOLAEk zera proposatzen du: haurrei zuzendutako mezu eta eredu sexistak hezkuntzatik orekatzea, ikas dezaten modu berdinezalean haz-ten eta harremanak izaten, indarkeriarik gabe eta bizi-aukera guztiak eskura dituztela; aukera dezaten modu libre eta arduratsuan, nork bere nahi eta gaitasunetatik, zer izan nahi duten bizitzan; eta garatu dezaten berdintasunean beren bizi-proiektua, neskak ala mutilak diren bazter utzita.

SKOLAEk proposatzen du, hezkuntza-etapa guztietan zehar, berdinta-sunera ez daramaten jarrera eta jokabideak aztertu, zuzendu eta konpen-tsatzea, baita berdintasuna lortzen lagunduko diguten jarrera eta jokabideak erakutsi eta identifikatzea ere.

- ✓ Nafarroako ikasle guztiei bermatu beharreko eskubidea delako berdintasuna.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik ezabatzeko bide bakarra delako berdintasuna.
- ✓ Gure seme-alabak beren harremanetan eta bizitzan zorientsuagoak egingo dituelako berdintasunak.

▶ 1. ZERGATIK IKASI BEHAR DA BERDINTASUNEAN BIZITZEN? ZERGATIK EZ DITUGU UZTEN GAUZAK DAUDEN BEZALA?

Ez dagoelako ongi hori. Berdintasun-ezaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren datuak altuegiak direlako gure erkidegoan zein aldamenetakoetan.

Berdintasunerantz aurrera egiteko eta emakumeen aurkako indarkeria eta bazterkeria ezabatzeko, administrazioak publikoak eremu desberdinetan gertatu ohi den berdintasun-eza ezabatzeko neurri zehatzak garatzera behartzen duten lege ugari onetsi dira Nafarroan, Espainian eta European azken urteetan.

Lege horiek argi eta garbi erakusten dute hezkuntza-administrazioak ardura duela berdintasuna hezkuntza-sisteman txertatzeko neurri eta ekintzak garatzeko zereginen

SKOLAE Nafarroako hezkuntza-administrazioaren erantzuna da aipatu araudia beteazterako. Eta SKOLAEk garatutako gai eta helburu guzti-guztiak araudia horren barruan daude zehatz eta zorrotz.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako webgunean dago aipatutako legedia eskura:

skolae.educacion.navarra.es

Beharrezkoa da txiki-txikitatik berdintasunean bizitzen ikastea, bai eskolan, bai familian, eremu guztietan izan ohi den berdintasun-eza aurre egin eta hura ezabatzeko. Gure ardura da, beraz, Nafarroako ikasleei, gure seme-alabei, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eta bizitza ematea jaiotzen direnetik, beren ardura izango baita gizarte hobea eraikitzea, non berdintasunean eta muga, oztopo edo bazterkeriarik gabe pertsona gisa hazi eta garatuko diren.

▶ 2. ZERGATIK SKOLAE?

Egia da berdintasunari, sexu-heziketari, indarkeriaren prebentzioari eta abarri buruzko eduki ugari jorratzen dituztela hezkuntza-zentroetan, baina ez dute egiten ez modu progresiboan txiki-txikitatik, ez modu sistematikoan, hau da, ez dituzte ohiko programazioetan txertatzen.

Hezkuntza-zentrokoak ez diren pertsonak edo maila pertsonalean inplikaturako irakasleek lantzen dituzte eduki horiek, baina, horrela, gai batzuk bai lantzen dira baina beste batzuk programazioetatik kanpo uzten dira.

SKOLAEk adin guztietarako lan-eduki sistematizatuak proposatzen ditu, modu progresiboan txertatzen direnak hezkuntza-sisteman; haiei esker, neska-mutilek beren bizitza berdintasunean bizitzen ikasiko dutela bermatzen da eskola-ibilbide osoan zehar, eta, gainera, eskola-erreferente direnen eskutik ikasiko dute.

▶ 3. ZER PROFESIONALEK PARTE HARTU DUTE SKOLAE DISEINATZEN?

Hezkidetzan, berdintasunean, sexologian, osasun publikoan, lidergoan, psikologian, medikuntzan, soziologian, gizarte-lanean eta abarrear profesional adituek parte hartu dute, eta parte hartzen ari dira, diseinuan, idazketan, materialen prestaketan, prestakuntzan eta tutoretzetan. Haiez gain, Nafarroako zein beste autonomia-erkidego batzuetako hezkuntza-sistemaren etapa guztietako (0-3 urteko etapa barne) irakasle ugarik ere esku hartu dute. Programa idatzi duten eta haren ardura hartu duten guztiek ibilbide

luzea dute berdintasunean eta hezkidetzan, eta lanak argitaratu, hitzaldiak eman eta ikastaroak egin dituzte, besteak beste, ospe handia izateraino arlo horietan.

Prozesu parte-hartzaile bat kudeatzeko ardura izan dute. Gero pilotajea parte hartuko zuten zentroetako irakasleek parte hartu zuten prozesu horretan hasieratik; horrela, testu, jarduera, ideia, kontzeptu, azalpen eta arrazoiak sistematizatu, antolatu, diseinatu, ordenatu eta idatzi ahal izan dira SKOLAE prestatzeko. Funtsean, beraz, programa antolatua, sistematikoa eta progresiboa da, berdintasuna hezkuntza-zentroetan ikas-teari begira.

► 4. ZERTAN DATZA SKOLAE PROGRAMA?

Erreferentzia-esparrua eta ikasgeletan egiteko lan praktikoa eskaintzen ditu programak, eta berdintasunean bizitzen ikasteko helburu eta jarduerak barne hartzen ditu hezkuntza-sistemaren etapa guztietan zehar.

Hezkuntza-ibilbide progresibo eta sistematikoa ezartzen du zentroetako irakasleek berek ezar dezatela hezkuntza-etapa guztietan, eta horixe da berrikuntza nagusia.

Ibilbidea lau ardatz edo ikaskuntza handitan egituratzen da, eta ikasgeletan lantzeko jarduerak eta edukiak proposatzen ditu, adin bakoitzera egokituak. 0-3 urteko etapan hasi, eta 18 urte dituztela bukatzen dira.

Hauexek dira 4 SKOLAE ikaskuntza:

- * Kritika eta ardura berdintasun-ezaren aurrean.
- * Autonomia eta independentzia pertsonala.
- * Lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala
- * Sexualitatea eta tratu onak.

Ikaskuntza horiek helburu komunak partekatzen dituzte, jarduera guztien oinarri direnak:

- * Emakumeak eta haiek gaur egun eta historian zehar alor guztietan (kultura, artea...) egindako ekarpenak ikusgai egitea.
- * Emakumeen aurkako indarkeria-mota oro ezabatzea.
- * Identitateak, kulturak, sexualitateak eta haien aniztasuna errespetatzen ikastea.
- * Berdintasunarekin konprometitutako maskulinitate eta feminitate-eredu berriak ikastea.
- * Ingurunean parte hartzea, berdintasuna errealitate eginda.

Prestakuntza- eta aholkularitza-plan bat du lagungarri, programa ezartzeko arduraren duten irakasleei zuzendutakoa hasiera batean. Mailaz maila, beharrezko aliantzak ezarriko dira hezkuntza-komunitatearen gainerako kideekin inplikatzeko eta haiekin koordinatzeko.

▶ 5. ZER LORTU NAHI DU GURE SEME-ALABENGAN?

Ikas dezatela berdintasunean bizitzen, izan neskak, izan mutilak.

Ikas dezatela berdintasunean konprometitutako gizon-emakumeak izaten.

Ikaskuntzak eta esperientziak jarri behar ditugu, beraz, ikasleen eskura, zertarako eta berdintasunean bizitzeko gaitasunak eta jarrerak ikasteko, gure gizartean dagoen berdintasun-eza eta sexismoa orekatzeko, eta beren bizitza eta harremanak modu zoriontsuago eta osatuagoan eraikitzeke desberdintasun-ezik, mugarik eta indarkeriarik gabe.

SKOLAEren ikaskuntza eta jardueren helburua berdintasunarekin konprometitutako kultura eta identitate bat sortzea da hezkuntza-zentroetan, nola eta familiarekin partekatuz haurrei berdintasunezko gizon-emakume gisa hazi eta bizi ahal izateko balio, eredu eta erreferentziak transmitituko dizkien heziketa bat.

▶ 6. ZER DA BERDINTASUNAREKIN KONPROMETITUTAKO MASKULINITATEA?

Gizon bakoitzak bere buruari buruz eta munduan duen lekuari buruz duen jokabide-, jarrera- eta pertzepzio-multzoa da maskulinitatea, hots, bakoitzak gizon izateko eta gizarte jakin batean gizon sentitzeko duen modua.

Berdintasunarekin konprometitutako maskulinitatea edo maskulinitate berdinzailea da gizona izateko modu bat zeinean gizonak ez baitu emakumea baino gehiago dela sentitu edo erakutsi beharrik gizon gisa duen balioa edo gizon gisa berrets dezaten bestek.

Gizonak ez dira errudunak pribilegio horiek jasotzeagatik, baina bai haiei eutsi eta onura ateratzen badiete. Hauek dira pribilegio horietako batzuk: denbora gehiago izatea beren gauzetarako, dirua zertan gastatu erabakitzea, arropa ez lisatzea, besteak haien esanetara egotea, atsedean hartzea....

Berdintasunarekin konprometitutako gizonak, aldiz, ez diete eusten jasotako pribilegioei, ez diete onura ateratzen, ez dute emakumeekiko nagusitasuna edo kontrola gauzatu beharrik gizon gisako balioa berresteko. Askatasunetik erabakitzen dute beren bizi-proiektuei buruz, hau da, lanari, familiari edo aisiari buruz, eta ez dira mehatxatuta sentitzen aldamenean emakume libre eta haren parekoa izateagatik, harekin bizikidetzaproiektu bat berdintasunean partekatzeagatik.

Bizi- eta harreman-eredu horrek parekotzat jotzen ditu emakumeak eskubide, aukera eta askatasunei dagokienez. Beren sendotasunak onartzen dituzte, baina ez dute zertan indartsuagoak eta ahalguztidunak direla aldi oro erakutsi. Zainketa-lanak partekatu behar direla uste dute, besteak zaindu ahal eta nahi dituztelako, baita besteak haiek zaintzea nahi dutelako ere. Aitatasunaz, aisiar gozatu ahal dute, baina bikotekidearen aisia mugatu gabe.

▶ 7. ZER DA BERDINTASUNAREKIN KONPROMETITUTAKO FEMINITATEA?

Emakume bakoitzak bere buruari buruz eta munduan duen lekuari buruz duen jokabide-, jarrera- eta pertzepzio-multzoa da feminitatea, hots, emakume bakoitzak emakume izateko eta gizarte jakin batean emakume sentitzeko duen modua.

Berdintasunarekin konprometitutako feminitatea edo feminitate ahalduna da emakume izateko modu bat zeinean emakumeak ez baitu zertan izan harengandik espero denaren arabera edo inguruko gizonak harengandik atsegin dutenaren arabera, hots, ez

baitu gizona baino gutxiago dela sentitu edo erakutsi beharrik emakume gisa duen balioa edo emakume gisa berrets dezaten besteeak.

Berdintasunarekin konprometitutako emakumeak beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratzen dira, baina ikuspegi kritikoa agertzen dute zainketaz behar baino ardura gehiago ematen bazaie. Ardurakidetasuna aldarrikatzen dute berdintasunean oinarritutako bizikidetzaproiektu bat partekatu ahal izateko. Duten balioaz kontziente dira, beren bizi-proiektuei buruz erabakitzeko gai sentitzen dira, sendo, askatasunetik erabaki ahal dute beren lan, familia eta aisiari buruz, erabakitzeko eta beren etorkizunaren protagonista berdintasunean izateko beldurrik gabe, eta ez dute sumisioa erakutsi nahi emakume gisa aitortu eta onartu ditzaten.

▶ 8. ZER IKASTEN DA “KRITIKA ETA ARDURA BERDINTASUN-EZAREN AURREAN” IKASKUNTZAN?

Gizon eta emakumeen arteko berdintasun-ezak identifikatu eta aztertze gaitasuna garatu nahi du, baita haiei aurre egiteko eta haiek aldatzeko ardura eta konpromisoa garatu ere, berdintasunaz kontziente eta harekin konprometitutako neska-mutilak, gizon-emakumeak izaten ikasiz.

Ikaskuntza honek pertsona kontziente eta arduratsu bilakatzen gaitu, bai banako gisa, bai kolektibo gisa, baita pertsona aktibo eta kritikoa ere berdintasunerako bidean.

Mailaz maila, gaitasunak eta jokabideak ezagutzen hasteko aukera ematen die gure seme-alabei, eta eredu eta jokabideei buruzko hausnarketara bultzatzen ditu berdintasunarekin konprometitutako gizon-emakumeak izan daitezen.

▶ 9. ZER IKASTEN DA “AUTONOMIA ETA INDEPENDENTZIA PERTSONALA” IKASKUNTZAN?

Nork zainketak bere gain hartzeko gaitasuna garatu nahi du, baita lan-munduan parte hartzeko gaitasuna ere norberaren autonomia eta independentziarako oinarri gisa bizi-proiektu berdinzale batean, bai neskontzat, bai mutilentzat.

Ikaskuntza honek zereginen eta arduren banaketan eta neska-mutilen bizi-aukeretan desoreka ezabatuko duen bizi-proiektu batera eraman nahi gaitu.

Besteak zaintzen eta gure burua zaintzen ikastea proposatzen du, baita prestakuntzak lan-munduan parte hartu ahal izateko duen garrantziaz ohartarazi ere autonomia eta independentzia pertsonal berme gisa hartuta.

▶ 10. ZER IKASTEN DA “LIDERGOA, AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA SOZIALA” IKASKUNTZAN?

Erabakiak hartzeko norberak duen gaitasuna ezagutarazi nahi du, baita beste pertsona batzuen lana eta jarduna koordinatu ere helburu komunak lortu eta elkarrekin lan egiteko orduan, berdintasuna gauzatu.

Ikaskuntza honek indartu egiten gaitu, bai banako gisa, bai kolektibo gisa, eta bizitza sozialean berdintasunetik eta errespetutik parte hartzeko gaitasuna ematen digu, gure botere pertsonala eta gure taldearena ezagutu eta aitortuta berdintasuna sortze aldera.

▶ 11. ZER IKASTEN DA “SEXUALITATEA ETA TRATU ONAK” IKASKUNTZAN’?

Neska-mutil bakoitzaren garapen indibidualarekiko errespetuzko heziketa afektibo-sexual bat nahi du erraztu; horretarako, sexualitatea eta harekin lotutako alderdi desberdinak jorratuko dira, halako moldez non pertsonetik eta haien dibertsitatearekiko begirunetik eraikiko baitituzte harremanak eta maitasunak, indarkeria matxistatik urrun.

Heziketa afektibo-sexualak hazkunde pertsonala eta sexualitatearekiko jarrera positibo eta arduratsua garatzea ditu helburu, osasunaren eta garapen pertsonal eta afektiboaren zati baita; horrela, arduraz eta erantzukizunaz jokatuko dute, beraiekiko ez ezik, bizi diren gizarte-testuinguruaren beste pertsonetik ere.

Adinaren arabera landuko da, eta gainerako ikasgaietan erabiltzen diren ikaskuntza-estrategiak erabiliko dira.

Eskola-edukiak hauei buruzkoak izango dira: giza fisiologia ikastea, gorputza eza-gutu eta izendatzea, ugalketa, giza sexualitatea, sexualitate arduratsua, sexualitatea giza harremanen oinarri gisa errespetu, osasun, plazer eta komunikaziotik, sexu- eta familia-dibertsitatearekiko errespetua, amatasunaren eta aitatasunaren ardura eta erantzukizuna, eta maitasun gaiztoko ereduak zalantzan jartzea (indarkeriara eta tratu txarretara eramaten baitute).

▶ 12. BA AL DUGU JARDUERAK EZAGUTZERIK JAKITEKO ZER EDUKI ZEHATZ JORRATUKO DIREN GAI BAKOITZEAN?

Lehenengo urtean zehar, apurka-apurka ezagutzen dituzte irakasleek jarduerak; ez dituzte denak ezagutzen, beraz, hasieratik. Horrela, irakasleek mailaz maila jarriko dute jarduera-proposamena esparru teorikoaren eta hezkuntza-zentroaren errealitatearen testuinguruan.

Dena den, programa osatzen duten jarduera guztien laburpen bat (200 baino gehiago dira) emango zaie familiei dokumentu batean, adinez adin ordenatuta. Webgunean ere egongo da ikusgai laburpena.

▶ 13. PROPOSATUKO AL DIE SKOLAEK IZAERA SEXUAL EDO EROTIKOKO ESPERIENTZIARIK IKASLEEI GELETAN?

Ez.

Ez da inoiz ez proposatuko, ez bultzatuko, ez iradokiko sexu izaerako jarduerarik getetan, eta ez da inoiz eramango jostailu erotikorik gelara, sektore batzuek kontrakoa sinestarazi nahi izan badute ere.

Garapen sexual eta afektiboaren adierazpenak desberdinak dira adinetan zehar. Txikitant, gorputzaren zatiak izendatu behar dituzte, elkar ukitu behar dituzte, zer ukitu beldurrik gabe, halaxe ezagutuko baitute. Halaber, mugak ezartzen hasi behar dute, ezetz esaten ikasi behar dute norbaitek mugak gainditu nahi baditu, baita konfiantzazko helduei haren berri eman ere. Izan ere, heziketak eta ezagutzak adingabekoen aurkako abusu sexualak ere prebenitu ditzakete.

▶ 14. SUSTATZEN AL DU SKOLAEK UME BAKOITZAK BERE SEXUA EDO SEXU-ORIENTAZIOA AUKERATZEA TXIKITATIK?

Ez.

Zerbait natural eta biologikoa da sexua, eta umearen atributu eta sentimenduek zehazten dute neska ala mutila den. Eskolak ez du esku hartzen horretan, eta SKOLAEren jarduerak ez dute sexua aukeratzera eramaten.

Adinarekin sortzen diren iritzi guztiak eta agertzen diren orientazio sexual guztiak errespetatzen dira, nork bere identitate eta orientazio sexuala lasaitasunez, onarpenez eta errespetuz bizi dezan bere sinesmen eta erabakiekin bat.

▶ 15. ZER ESAN NAHI DU NESKA-MUTILEK GENERO-BALDINTZATZAILERIK GABE ERABAKIKO DUTELA BEREN ETORKIZUNARI BURUZ?

Horrek esan nahi du duten sexua errespetatuko dela eta neskak izateagatik ala mutilak izateagatik jaso ohi den heziketa-mota desberdina ezabatzen saiatuko dela.

Beren bizitzari buruz modu askean erabakitzeke gaitasunean hezten du SKOLAEk, neska izateak ala mutila izateak beren etorkizuna mugatu edo baldintzatu gabe.

Gure seme-alabek nahi dutena izan eta egin dezatela lan egingo dugu: nahi duten jolasen aritu, nahi duten kirola egin (patinatu, futboleko aritu...), liburuak irakurri, biolina jo, dantzatu, fisika, mekanika edo ingeniariak ikasi, lore-negozio bat sortu...

Askatasun horretan hezteko, dena egiteko gai direla transmititu behar diegu, haur-hezkuntzatik, etxean zein etxetik kanpo, autonomia eta zainketak ikasteko gai direla, independenteak izan beharko dutela, proiektuak edo pertsonak zuzendu eta lideratu ahalko dutela, ahalegintzeko eta beren burua hobetzeko gauza direla, ikasteko, lan egiteko, familia bat sortzeko... berdintasunetik betiere.

Izan neskak, izan mutilak. Beren eskubideak ezagutu eta beren bizi-aukerak antzeman beharko dituzte, berdintasunean betiere.

▶ 16. ETA ESKOLAN IKASTEN DUTENA BAT EZ BADATOR GURE SINESMENEKIN, GURE ERLIJIOAREKIN EDO GURE ARAU MORALEKIN?

Gure gizarte demokratiko honetan, haur guztientzako berdintasunaren ikaskuntza eskolak, familiak eta gizarteak berak, oro har, partekatutako jarduera eta erantzukizuna da.

Legeak eskolari esleitu dio berdintasunaren alde hezteko eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko ardura, besteak beste. Heziketa hori, beraz, ez doa berdintasunean oinarritzen diren balio moralen aurka (berdintasunean oinarritzen direla ulertzen baitugu).

Agindu erlijioso edo kulturaleri lotutako heziketa moralak esparru pribatuari dagokio, eta eskolak ez ditu inoiz zalantzan jarriko ezein umeren balio moral edo erlijiosoak. Eskolan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren balioa eta berdintasuna bermatzen duten jokabideak ikasi beharko dituzte haurrek, izan mutilak, izan neskak.

Berdintasunerako heziketak neska-mutilen garapen pertsonal eta kolektiboan laguntzen du, desberdintasun-eza eta bazterkeria albo batera utzita, berdintasunean bizitzen ikas dezaten, pribilegiarik gabe eta ardura desberdinak ezarri gabe neska ala mutila izateagatik.

Espainiako Konstituzioan bildutako eta hezkuntza-komunitateek bete beharreko legeugarik garatutako funtsezko eskubide baten inguruan egituratzen da SKOLAEk sustatutako heziketa berdinzalea: gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa, kultura, sexu-orientazioa edo -identitatea, egoera funtzionala eta abar edozein izanda ere.

▶ 17. EPAITU AHALKO GAITUZTE GURE SEME-ALABEK GURE FAMILIA-BIZITZAREN DESBERDINTASUN-EZ TXIKI EDO HANDIAK DIRELA ETA?

Berdintasunean bizitzearen aldeko eta aurkako jokabideak identifikatzen ikasiko dute, eta onuragarria izango da etxean berdintasunezko ohiturak, ardurak partekatzearen aldeko jokabideak eta berdintasunarekiko balorazio positiboa izatea.

Gauzak hobekiago egitera bultzatuko gaituzte, ez erretzera, ur-kontsumoa murriztera, zaborrak birziklatzera eta abarrera bultzatzen gaituzten bezala. Ikasten dutena etxera eraman, eta hobetzen laguntzen digute.

Bizi diren mundua antzeman eta ulertzen ikasiko dute, baita ohiko bidaide izan dugun sexismoa ere. Berdintasuneranzko bidea luzea dela eta nork bere erritmoan, dituen aukeren eta jasotako heziketaren arabera, egin behar duela ikasi behar dute. Eta, batez ere, ikasitakoa gauzatu egin beharko dute.

▶ 18. ETA ETXEAN INDARKERIA ETA TRATU TXARRAK GERTATZEN BADIRA?

Gure familiak indarkeriarik gabeko ingurune segurua izan behar du gure seme-alabentzat, horixe baita beren bizitzak berdintasunean, indarkeriarik gabe bizitzen ikas-teko modu bakarra; eta gure ardura da hori.

Horregatik, gure etxea hazi eta hezteko behar duten ingurune seguru hori izango ez balitz, laguntza eskatu eta indarkeriarekin eta tratu txarrekin hautsi egin behar dugu, zuregatik eta zure seme-alabengatik.

▶ 19. DEBEKATUKO AL DU SKOLAEK ABESTI JAKIN BATZUK ENTZUN EDO LIBURUREN BAT IRAKURTZEA?

Ez.

Sexismoak gure gizartean duen presentzia aztertu eta ulertzeko, ipuinak, abestiak, liburuak edo publizitate-iragarkiak aztertzen dira, adinen arabera, sexistak ote diren eta zer balio transmititzen dituzten ikusteko.

Sexismoa eta berdintasun-eza ezagutu eta identifikatzea da lehen urratsa berdintasunaren aurkako jarrera, jokabide eta portaerak gure ikasleengandik ezabatzeko.

▶ 20. MUTILEI JOSTEN ETA GARBITZEN IRAKASTEN BADIEGU, ETA NESKEI FUTBOLEAN ARITZEN ETA ERROBOTIKA EGITEN, AZ AL GARA NAHASTEN ARIKO ARAU EDO TRADIZIOAREN AURKA JOANDA?

Ez.

Denetarik ikasteko aukera emateak ez dio inoren izaerari eraso egiten. Eta ez da inor nahasten berdintasunak haren bizitza eta aldamenekoena hobetzeko eskaintzen dituen abantailak erakutsita.

Neska-mutilentzat onena, positiboena da denetarik egiten ikastea, autonomoak eta independenteak izateko, bizitzeko eta bizitza, zainketak, lana, aisia eta ardurak zein erantzukizunak berdintasunean partekatze denon artean.

Eta horretarako eskubidea dute, nahi eta guk, gurasook, behar bezala ez badugu ikasi ere gure bizitzan zehar.

▶ 21. ATERATZEN AL DITUT NIRE SEME-ALABAK ZENTROTIK JARDUERETAN PARTE HARTZEA NAHI EZ BADUT?

SKOLAEren jarduerak eskola-programazioen ohiko garapenaren barruan txertatuta daude, eta gainerako edukien irakasleek ematen dituzte. Ez da bidezkoa galaraztea haur batek berdintasuna eta indarkeriaren prebentzioa ikastea, ikaskuntza horiek hezkuntza-eremuan garatu behar direla agintzen duelako legeak.

▶ 22. EXIJITU AL DEZAKET JAKITEA NOIZ EGIN BEHAR DIREN JARDUERAK, ETA NIRE SEME-ALABAK GELATIK ATERA ORDUAN?

Ez.

Ikasturte bakoitzean eta hiruhileko bakoitzean zer landu behar den esaten zaie gurasoei bai ikasturte-hasierako tutoretza-bileretan, bi ikasturte osoan zehar. Familiaren batek azalpen gehiago beharko balu, tutoreak eman ahalko dio.

Familiak nahi adina informazio eta azalpen eskatu ahal diote zentroari, tutoreei, zerbaitek kezkatuko balitu, zerbait ulertuko ez balute edo informazio zehatzagoa nahiko balute.

Zentroa, ordea, ez dago behartuta aditzera ematera zer egunetan jorratuko den eduki bakoitza, ez SKOLAEren kasuan, ez beste proiektuen kasuan. Eskolako ezein jarduera ez dago familiaren kontrolaren mende.

Eskatuko balute ere, zentroak ezin du baimendu familia horien haurrak beste espazio batera ateratzea edo SKOLAErena ez den beste jardueraren bat egitea. Beharrezko edukiak dira, egungo araudiak agindu bezala, eta ikasle guztiei aplikatu behar zaizkie, salbuespenik gabe.

▶ 23. NOLA PARTE HARTU AL DEZAKETE FAMILIEK BERDINTASUNEAN BIZITZEN IRAKASTEKO?

Hasieran, hezkuntza-zentroak denbora behar du prestakuntza jasotzeko, programari buruzko informazioa ezagutzeko eta familiekin partekatze.

Gutxika-gutxika, heziketa- eta informazio-jarduerak proposatuko dira, eta irakurtzeko zein kontsultatzeko materialak banatu; haiei esker, zentroan jorratzen ari diren helburuak ezagutu eta haietan lagundu ahalko dute familiek, nahi izanez gero.

Berdintasunean hezteak, adibide ematea eta ardurakidetzaren aldeko familia-ereduak funtsezkoak dira gure gizarteak berdintasunerantz aurrera egingo duela bermatzeko.

▶ 24. ZER DAKARKIO HEZKUNTZA-ZENTRO BATI SKOLAEN PARTE HARTZEAK?

Zentro bakoitzeko zuzendaritza-taldea programari atxikiko zaio, eta, gero, talde sustatzaile bat eta hezkidetzako-koordinatzaile bat aukeratu dituzte.

Departamentutik, SKOLAE koordinatzeko eta kudeatzeko taldeak, ebaluazio-atalak eta hezkuntza-ikuskaritzak programa garatzen lagundu eta gauzatzen ari ote den kontrolatzen dute.

Halaber, koordinazio pedagogikoko taldeak, hizlariak eta kanpo-tutoretzek prestakuntza ematen dute, programari jarraipena emate aldera.

Hezkuntza-zentroek informazioa emango dute eta familiekin partekatuko dituzte helburu eta ikaskuntzak, unibertsitate arteko ikasle nafar guztiek berdintasunean bizitzen ikastea ahalbidetuko duten ikaskuntzak, zehazki.

Zentro bakoitzak hezkidetzaren alde adierazitako konpromisoa zentroko dokumentazio ofizialean bildu ez ezik, ikusarazi ere egin beharko du.

Jarduerak zentroaren egunerokoan, tutoretzetan, ikasgaietan eta jardueretan, txertatu dira.

Zentroko irakasleek, hau da, gela bakoitza, ikasle bakoitzaren ulermen-maila, hausnarketa-gaitasuna eta lan-ahalmena ezagutzen dutenek, gauzatuko dute berdintasuneranzko ikaskuntza.

Tutoreek familiekin partekatuko dute, maila orokorrean, proiektua, ikastetxeak egiten dituen beste proiektu batzuetan bezala, ikasleak inplikatu eta zentrotik kanpo egingo diren jardueren bidez ingurunean eraginda, beste gai batzuetan egiten den bezala.

▶ 25. ZENBAT JARDUERA EGITEN DIRA, ETA ZERI EGITEN ZAIO UKO HAIK EGIN AHAL IZATEKO?

Estreinako urtean, hots, irakasleak prestakuntza jasotzen ari diren bitartean, 4 eta 8 jarduera artean egiten dira ikasturte osoan zehar, eta ordubete behar da bakoitza egiteko (gelan, tutoretzan...)

Hurrengo urteetan, irakasle bakoitzak nahi bezala antolatu eta 12 jarduera, gehienez, egiten ditu ikasturte osoan; beraz, ordu bat edo bi eskaintzen zaizkie hileko eduki horiei gela bakoitzean.

Hartara, ez diete denbora kentzen ikasgaiei, ikasgaien ohiko programazioan, tutoretzetan edo jarduera osagarrietan txertatu behar baitituzte irakasleek, hau da, programazioa bete beharra dago, beste eduki batzuekin egiten den bezala.

▶ 26. NOLA HASTEN DA EZARTZEN?

SKOLAEren esperientzia pilotua 2017-18 ikasturtean hasi zen, hezkuntza-etapa guztietako 16 hezkuntza-zentrotan. Helburua da datozen hiru urteetan derrigorrez ezartzea Nafarroako 400 ikastetxe baino gehiagoetan.

2018-19 ikasturtean lehenengo orokortzea egin da, ia 100 hezkuntza-zentro publiko eta itundu sartu baitira. Hezkuntzako zuzendari nagusiak erabakitzen du urtero, ebatzen bidez, zein sartuko diren.

Parte hartuko duten zentroetako irakasle batzuek prestakuntza erdi-presentziala jasoko dute urtebetean zehar; hari esker, jarduerak geletan praktikan jartzeko gaitasuna, eta laguntza, izango dute irakasleek. Jarduerak ikasturtean zehar ezarritako egutegi eta epeetan gauzatu beharko dira.

Urtebeteko prestakuntza eginda, sakontzeko eta sendotzeko prestakuntza dator, hezkidetzan hezteko gaitasuna irmotze aldera.

Zentroek bi urteko epea dute SKOLAE ezartzeko talde guztietan eta, ondorioz, haren ardura duten irakasleei prestakuntza emateko.

▶ 27. ZERGATIK DAGO HAIN ANTOLATUTA ETA LERROTUTA PROZEDURA?

Zentroi eta irakasle bakoitzari prestakuntza, aholkularitza, laguntza pertsonalizatua eta gelan jorratzeko materialak emateko diseinatu zelako SKOLAE, baita prestakuntzaren ziurtapenaren objektibotasuna bermatzeko ere.

Eta bermatzeko modurik onena mailaz maila ezartzea da, hau da, ezarpena, ebaluazioa eta ziurtapena lerrotu eta antolatzea.

Hezkuntza Departamentuak, parte hartuko duten guztiak egiaztatu, ebaluatu eta ziurtatzeko baldintzak ezarri ez ezik, behar bezalako arreta eman behar die ere prestakuntza jaso behar duten 1.400 pertsona baino gehiagori, eta hortik dator ikaskuntza bakoitzaren jarduerak ezartzeko epeak eta lehenengo ikasturtean zehar egin beharreko zereginen epemugak zehazteko beharra.

Programarekin jarraitu heinean, irakasle bakoitzak jarduerak egokitu ahalko ditu urteetan zehar, malguak baitira; hartara, jardueren eragina indartuko da, irakasle bakoitzaren gaitasun, profesionaltasun, interes eta sentsibilitatearen arabera betiere.

▶ 28. EZ AL LITZATEKE HOBE ZENTRO BAKOITZAREN EGOERA ETA BEHARRAK AZTERTU ETA BEHAR DUEN HORI EZARTZEA GERO?

Lehenago garatutako beste proiektu batzuen esperientziatik abiatuta, ondorioztatu dugu ezarpen-prozedura hau dela kostu gutxien dakarrena eta arrakasta-maila handiena bermatzen duena hezkidetzaren mailaz mailako ezarpenean.

▶ 29. ETA ZER GERTATUKO DA BERDINTASUNARI, INDARKERIAREN PREBENTZIOARI EDO SEXU-HEZIKETARI BURUZ ZENTROAN EGITEN ZIREN JARDUEREGIN?

Barne- zein kanpo-profesionalekin lantzen ziren edukietako asko SKOLAEk adin desberdinetarako eskaintzen dituen jardueren barruan txertatuta daude.

Ezarrita dauden jarduerak gauzatu beharko dituzte irakasleek heziketan zehar. Gero izango du irakasleak SKOLAEren jarduerak bere eskarmentuarekin edo beste proposamen batzuekin aberasteko aukera.

Gure ikuspuntutik, hezkuntza-zentroetan egunero eskolak ematen dituzten irakasleak dira erreferentziarik onenak berdintasuna, indarkeriaren prebentzioa eta abar ikasteko. Edozein kasutan ere, zentro bakoitzak erabakiko du nola jarraitu osatzen gai espezifiko batzuk bertako irakasleak ez diren profesionalekin.

▶ 30. NOLA EGITEN DA EDUKI HORIEK ZENTROAK GAUZATZEN ARI DIREN BESTE BATZUETAN INTEGRATZEKO (PROIEKTUEN ARABERAKO IKASKUNTZA, IKASKUNTZA KOOPERATIBOA, PEDAGOGIA AKTIBOAK...)?

Arazorik gabe integratu daitezke berdintasunari buruzko jarduerak proiektu, ikaskuntza eta metodologia horietan. Zentro bat lantzen ari den edozein esparru metodologikotan aplikatu eta garatu daitezke gure jarduerak, eta ez dira zertan hautsi zentroaren proiektuetan sortu edo jorratzen diren dinamika naturalak.

Litekeena da norbaitek galdetzea ez ote den hobe gai horiek jorratzea berez, naturaltasunez suertatzen direnean eta ez modu zertxobait behartu honetan.

Hezkuntza-eduki guztiak planifikatu eta programatu beharra dago, eta horixe da hezkuntzan lan egiteko modua. Izan ere, planifikazioa da ikaskuntzen sistematizazioaren bermea, horrexek bermatzen baitu beharrezko eduki guztiak landuko direla.

Berez, naturaltasunez suertatzen diren gaiei buruz hitz egiteko gaitasunak indartu egingo ditu programatutako ikaskuntzak.

▶ 31. DENBORA ETA DEDIKAZIO HANDIA ESKATZEN AL DIE PROGRAMA EZARTZEKO PRESTAKUNTZA JASO BEHAR DUTEN IRAKASLEEI?

Alderatu eta baloratu ondoren, dedikazio murrizteko programa bat diseinatu dugu: 35 ordu (prestakuntza eta praktika) irakasleentzat lehenengo urtean eta beste 15 ordu talde sustatzaileentzat. Prestakuntza on line da gehien bat, hau da, norberak nahi duen tokian eta orduan.

Prestatzeko eta eguneratzeko beste edozein prozesutan bezala, honek ere ahalegina dakar irakasleentzat hasieran. Izan ere, berdintasuna ez da irakasleen hasierako prestakuntzaren zati, eta, ondorioz, eskola-orduetatik kanpo egin behar dute; horrez gain, denbora eman beharko dute programa eta haren estrategiak eta dokumentuak ezagutzen.

Gero, programa hau jorratzeko denbora eskolak prestatzeko beharko duenaren zati izango da.

▶ 32. ZERGATIK DA BEHARREZKOA?

Beharrezkoa da ikasle guztiek berdintasunean jaso dezaten berdintasunerako heziketa, hau da, ez ikastetxearen edo tutorearen borondatearen arabera.

Curriculumean eta programazioetan txertatzen da, gainerako eskola-edukiak bezala (horiek ere ez dira boluntarioak).

▶ 33. ZENTRO ITUNDUETAN ERE BEHARREZKOA DA, PUBLIKOETAN BEZALA?

Lau ikaskuntzen helburuak Nafarroako hezkuntza-zentro guztietan bete behar dira, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren uztailaren 2ko 350/2018 ebazpenarekin eta abuztuaren 10eko 418/2018 ebazpenarekin bat.

Sare publikoaren zentroek SKOLAE Programaren prestakuntzaren eta hartan proposatutako jardueren bidez gauzatu behar dute.

Sare itunduaren zentroek, aldiz, beren prestakuntza eta jarduerak garatu ditzakete, helburu berak lortze aldera betiere, indarreko legediarekin bat.

Hezkuntza Ikuskaritzak ikuskatu eta bermatuko du hezkuntza-zentro guztietan, publikoetan zein itunduetan, behar bezala garatzen direla ezarritako helburuak.

▶ 34. NOLA JAKINGO DUGU EGOKIA OTE DEN GURE SEME-ALABENTZAT?

Jarraipena eta ebaluazioa egingo zaizkio SKOLAEri. Horrela, emaitzak eta Nafarroako ikasleengan izandako eragina egiaztatu eta frogatu, emaitzak epe labur eta ertainean identifikatu, eta beharrezko zuzenketak egin ahalko dira, programa indartu eta sendotze aldera.

Gure europar inguru hurbileko ikerlan askoren emaitzek argi erakusten dute berdintasunean ikasteak errendimendua eta eskola-bizikidetzak hobetzen dituela, zorientasun-pertzepzioa handitzen duela helduen harremanetan, eta babesa ematen duela berdintasun-ezaren aurrean eta emakumeen aukako indarkeria-egoeretan.

Ebaluazio eta praktiken emaitzak aditzera emango dira aldian behin.

▶ 35. KOLAE IDEOLOGIA, DOKTRINAMENDUA AL DA?

Hezkuntza-arloan berdintasun-politiken eta indarkeria-prebentzioaren politiken garapen praktikoa da SKOLAE.

Emakumeak lan-munduan sartzeko aukerak handitzeko, lan-bazterkeria ezabatzeko, lana eta familia uztartzeko, sexu- eta ugalketa-osasuna hobetzeko eta abarrerako politikak daude. Programak eta ekintzak garatzen ditu haietako bakoitzak, eta hezkuntza-arloari zuzentzen zaizkio batzuk.

Eta haietako bat da SKOLAE. Berdintasun-eza eta genero-indarkeria errotik ezabatzeko eta haren aurka borrokatzeko moduak ezartzeko onetsitako indarreko legedia betearaztea du helburu.

Berdintasun-eza eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko lehen urratsa da haur bakoitza duen sexuaren arabera eta mutil ala neska gisa duen dibertsitatearen arabera hezteko zein mutila izateagatik ala neska izateagatik jasotzen duen heziketa desberdina ezabatzea.

Beharrezkoa da txiki-txikitatik berdintasunean bizitzen ikastea, bai eskolan, bai familian, eremu guztietan izan ohi diren berdintasun-ezei aurre egin eta haiek ezabatzeko.

Gure ardura da, beraz, Nafarroako ikasleei, gure seme-alabei, berdintasunean oinarritutako hezkuntza eta bizitza ematea jaiotzen direnetik, beren esku egongo baita gizarte hobea eraikitzeko ardura, non berdintasunean eta muga, oztopo edo bazterkeriarik gabe pertsona gisa hazi eta garatuko diren.

▶ 36. ETA GALDERA GEHIAGO BADUZU...

Bidal iezaiozu Hezkuntza Departamentuari:

skolae.educacion.navarra.es





SKOLAE

BERDIN BIDEAN
CRECIENDO EN IGUALDAD